

# ELKARTE

# 40

Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea

**Ahalmen-urritasun  
Fisikoa duten  
Pertsonentzako  
Baliabideen Gida  
aurkeztu da**

**FREEDOM DRIVE**



*Gozoratu...*

## ARABA

Beato Tomás de Zumárraga, 96-98 behea  
Tel. eta Faxa: 945 225 516  
01009 VITORIA-GASTEIZ  
e-mail: eginez@euskalnet.net  
www.eginez.org

## GIPUZKOA

Ondarreta pasealeku 5.ean  
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379  
20018 DONOSTIA  
e-mail: elkartu@elkartu.org  
www.elkartu.org

## BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea  
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69  
48014 BILBO  
e-mail: fekoor@fekoor.com  
www.fekoor.com

# KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

## GIPUZKOA

- **AGAEB**  
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarte.
- **AGAER**  
Gaixotasun erreumatikoek erasandako Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**  
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **ANAIIDIA**  
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetasa.
- **ASPARGUI**  
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BIZI-BIDE**  
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **Debabarreneko Gutxitu Fisikoak.**
- **LEZDI**  
Lezoko gutxituen elkarte.

## BIZKAIA

- **A.C.C.U.**  
Crohn-en eritasuna eta ulteradun kolitisa duten gaixoen elkarte.
- **A.D.E.L.E.S.**  
Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte.
- **ADEMBI**  
Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte.
- **ALCER**  
Giltxurruneke gaixotasunen aurkako elkarte.
- **ASEBI**  
Asociación bizkaia elkarte espiná bífida e hidrocefalia.
- **Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko gurasoen bizkaiko elkarte.**
- **Lea-Artibaiko ahalurri fisikoen elkarte.**
- **AHEVA**  
Eusko hemofiliaren elkarte.
- **ARGIA**  
Ostomizatuen eta inkontinenteen euskal elkarte.
- **ASPANOVAS**  
Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte.
- **AUXILIA**
- **A.V.A.H.**  
Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarte.
- **B.E.N.E.**  
Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte.
- **BIDARI**  
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko ermuko elkarte.
- **BIZKEL**  
Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak.

- **CODISFIBA**  
Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko elkarte.
- **FRATER**  
Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte.
- **L.E.V.A.R.**  
Artritis reumatoidea duten pertsonekiko elkarte.
- **EFELA**  
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko arratiko elkarte.

## ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**  
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonekiko Elkarte.

Eusko Jaurlaritzako  
Justizia, Lan eta Gizarte  
Segurantza Sailak  
diruz, lagundutako  
argitalpena.

---

Elkarte horiekin  
harremanetan jarri nahi  
baduzu, jo ezazu zure  
probintziako  
koordinadorara

# a u r k i b i d e a

## O r o k o r r a

---

1. AHALMEN-URRITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONENTZAKO BALIABIDEEN GIDA AURKEZTU DA.....	4
2. ELKARTEAN EUROPAKO PARLAMENTUAN IZAN DA. FREEDOM DRIVE .....	6
3. GOI IKUSKARITZA .....	8
4. GIZARTERATZEKO ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LEGEAREN BESTE ALDAKETA BAT ONARTU DUTE .....	9
5. ARDURAPEKO SEME EDO ALABENGATIKO FAMILIA-LAGUNTZA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAZ (DBE) OSA DAITEKE .....	13
6. MINBIZIA EDO BESTE GAIXOTASUN LARRIREN BAT DUTEN ADINGABEAK ZAINTEZKO PRESTAZIO EKONOMIKOA .....	14
7. MINUSBALIOTASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIOARTEKO HITZARMENA: LANTEGIAK .....	16
8. CERMI AUTONOMIKOAK: ESTATU-MAILAKO VII. KONGRESUA .....	21

## AHALMEN-URRITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONENTZAKO BALIABIDEEN GIDA AURKEZTU DA

Ahalmen-urritasunaren Munduko Eguna eta Ahalmen-urritasuna duten pertsonen Nazioarteko Eguna ospatu zen egunean, Gasteizen, Udal Liburutegiko ekitaldien aretoan zehazki, Ahalmen-urritasuna duten pertsonentzako Baliabideen Gida aurkeztu zuen ELKARTEANek, elkarteak berak argitaratutako gida. Udalak ekitaldirako utzi zion aretoa federazioari.

Carlos Solak, ELKARTEANeko lehendakariak, eta Blanca Esther Pinedok, erakundeko batzordekideak, aurkeztu zuten gidaliburua. Victor Bayarrik ere hartu zuen parte ekitaldian, alderdi teknikoaren ordezkari. Hainbat komunikabide bildu ziren aurkezpenean.

Gidaliburua Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak lagundu du diruz.

Gidaliburuaren helburua da zuzeneko informazio baliagarria ematea ahalmen-urritasunaren bat duten Euskadiko 120.000tik gora lagunei, tokiko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko administrazioen baliabideei buruz; izan ere, ahalmen-urritasunaren gaineko eskumenen egitura konplexua da eta eskumenak zatikatuta daude eta, horregatik, nekez orientatu daitezke ahalmen-urritasunaren bat dutenak eta haien ingurukoak.

Hain zuzen ere, ahalmen-urritasunaren gaineko eskumenen egitura oso konplexua dela-eta, ahalmen-urritasunaren bat duten askok ez dakite zer baliabide dituzten eskura, ez dituzte



erabiltzen eskura dituzten baliabide guztiak edo denbora asko galtzen dute leihatilaz leihatila, administraziozko izapide luzeak egiten.

Ahalmen-urritasunaren bat dugunon egoera are zailagoa da, mugikortasun-arazoak baititugu baliabideak eta azpiegiturak erabili ezin ditugulako, eta atzeratuta baikabiltza beste talde batzuen aldean informazio- eta komunikazio-teknologia berrien erabileran.

Oztopo asko ditugu inguruan aukera-berdintasuna erabatekoa izateko, eta baztertuta gaude oraindik alde askotatik. Gizarte-egiturek, lekuek, oztopo arkitektonikoen, komunikazio-oztopoen, gizartearen jarrerak eta jokaerak gaitasunak galarazten dituzte inguruan eta, horregatik, baztertu egiten gaituzte ahalmen-urritasunaren bat dugunok.

Gidaliburuak zuzeneko informazio baliagarria dakar, ondo antolatuta: ahalmen-urritasun maila aitortzeko



zuzemenak, laguntzak eta zerbitzuak bideratzeko izapideak, eta ahalmen-urritasunen bat dutenek eta senideek gaur egun hezkuntza-, lan-, familia-, justizia-, garraio-, etxebizitza-, irisgarritasun- eta osasun-arloan dituzten baliabideak.

Gidaliburuak 277 orrialde ditu, eta Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan dauden laguntzei buruzko informazioa dakar, antolatuta. Gai hauek lantzen ditu, besteak beste: diru-laguntzak bideratzeko izapideak, ahalmen-urritasunen bat duten haurrak hezkuntza-sistemako maila guztietan eskolatzeko laguntzak, enplegua sustatzeko laguntzak, zerga-kenkariak, ahalmen-urritasunen bat dutenen autonomia hobetzeko baliabideak, garraio publiko egokituak, aparkatzeko txartela bideratzeko izapideak, autoeskola egokituak, etxebizitza egokituak, osasun-arloko laguntza, eta gurpil-aulkiak eta laguntza teknikoak eskatzeko izapideak.

Gainera, gidaliburuak baliabide eta helbide interesgarrien direktorio al-



fabetiko bat biltzen du: telefonozenbakiak, webguneen helbideak eta helbide elektronikoak.

Federazioak 15.000 ale argitaratu ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, eta ahalmen-urritasun fisikoren bat duten Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei banatuko dizkie, ELKARTEAN osatzen duten elkarteen, erakundeen eta alor horretan lan egiten duten gizarte-entitateen bitartez.



Lau atalek osatzen dute gidaliburua. Lehenengoak azaltzen du zein diren zerbitzugileek ahalmen-urritasun maila eta ahalmen-urritasuna bera aitortzeko prozesua eta izapideak. Bigarrenak deskribatzen du zein diren laguntzak eta baliabideak eskuratzeko eskubidea lortzeko prozedurak eta izapideak, hamar multzotan: hezkuntza, lana, familia, helburua, justizia, laguntzak, garraioa, etxebizitza, irisgarritasuna eta osasuna.

Hirugarrenak glosario bat dakar, ahalmen-urritasunaren alorrean erabiltzen diren terminoak definitzeko. Azkenik, laugarrenak baliabide eta helbide interesgarrien direktorio bat dakar.

# Elkartean Europako Parlamentuan izan da FREEDOM DRIVE

Irailaren 13an, aniztasun funtzionala duten pertsonaz bete ziren Estraburgoko kaleak, **Freedom Drive** 2011 ekimenean. Europa guztiko jendea bertaratu zen.

Bizitza Independentearen aldeko Mugimenduak European antolatzen duen ekimenik garrantzitsuenak da Freedom Drive, eta bi urtetik behin izaten da, Estraburgon.

Hala, aniztasun funtzionala duten pertsonak martxa bat egiten dute hiriko kaleetan barna. 25 herrialdeko ordezkariak biltzen dira. Europako Parlamentura joatea da azken helburua, eta, han, zenbait eskaera eta aldarrikapen helarazten dizkiote Parlamentuko presidenteari, aniztasun funtzionala duten pertsonak bizimodu autonomoa eta independentea izatea lortze aldera.

ELKARTEANek ere parte hartu zuen 2011ko ekimenean. Europako gainarako ordezkariekin batera, Europako erakunde horren egoitzara joan ginen,

eta autodeterminazioa, aukera-berdintasuna eta eguneroko bizitzaren gaineko kontrola lortzeko aldarrikapen eta proposamen sorta bat eraman genizkien europarlamentariei.

Herrialde guztiak bat etorri ziren BIZITZA INDEPENDENTE BAT lortzeko baliabide falta dela aniztasun funtzionala duten pertsonen aldarrikapen eta proposamenen ardatza. Gure autonomia-erkidegoan bertan, 2007. urtetik hasita indarrean dago Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legea, baina, hala ere, arazo ugari ditugu: banakako laguntzaileak izateko beharrezkoa den finantziarioa ez dago bermatuta, ez dago benetako laguntzarik modu libre batean aukeratutako bizimodu bati ekiteko, eta, azken batean, aniztasun funtzionala duten pertsona asko erakundeen mende bizi dira, osasun- eta egoitza-baliabideen eta beste laguntzen mende.



Espainiak, ezohiko lastertasunez, Ahalmen Urritasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Europako Hitzarmena berretsi zuen. Ildo horretatik, zerbitzu-sistema bat eratu dute, baina, nolanahi ere, mendekotasuna sustatzen dute, eta ez dute baliabiderik ematen bizimodu autonomoa eta independentea bermatzeko, horixe baita, hain zuzen, gure kolektiboak eskatzen duena eta hitzarmen horren 19. artikulua aldarrikatzen duena: *“Independentzia bizitzeko eta erkidegoan barneratuta bizitzeko eskubidea”*.

FREEEDOM DRIVE martxan Europako gainerako herritarrekin batera parte hartzeaz gainera, Ahalmen Urritasunaren Taldearen ganberaren saio batean izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari eta Estraburgon.

Adan Kösna izan zen saio hartako buru.

Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako *europarlamentariekin* ere bildu ginen; besteak beste, Izaskun Bilbao Barandika (EAJ/PNV), Rosa Estarás (PP) eta Alejandro Cercas (PSOE).

Gainera, Estraburgon bertan, Bizimodu Independentearen aldeko Europako Sareak (ENIL) zenbait hitzaldi, tailer eta ekitaldi antolatu zituen aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideen ikuspegia ardatz harturik, eta han ere izan ginen.

Espero dugu Europako araudiak lagungarri izatea aniztasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko bitzaren alderdi guztietan.



Izaskun Bilbao (EAJ/PNV) eta Alejandro Cercas (PSOE)



# Goi Ikuskaritza

Aurreko zenbakietan, Goi Ikuskaritza-ko Zuzendaritza onartu zela jakinarazi genuen. Hain zuzen, 2011. urtean sortu eta hasi da lanean organo hori. Organo horren zuzendariak eta ELKARTEANek izaniko lehen hartu-emanen zuzendaritza horren nondik norakoen eta asmoen berri eman zioten elkarri, eta hirugarren sektoreko erakundeen inguruko lehen hurbilketare ere egin zuten.

Aurrekoan azaldu genuenez, Goi Ikuskaritzaren helburua ez da norbanakoen arazoak jasotzea, gomendioak ematea eta ikerketak martxan jartzea baizik. Nolanahi ere, erakundeen bidez zenbait zehaztapen jaso ditzake.

Alde horretatik, ELKARTEANek aukera izango du elkarteko bazkideen artean ikusitako eta jasotako gai eta arazoak organo horretara helarazteko, hala Zuzendaritzak Goi Ikuskaritzara biderra ditzan. Goi Ikuskaritza horrek erabakiko du gero planteamendu horiek aztertzekoak diren edota esku-hartzea beharrezkoa den.

Goi Ikuskaritzaren beste helburuetako bat da lurraldeen artean halako batasun bat sortzea eta laguntzak eta zerbitzuak bateratzea; hau da, Gizarte Zerbitzuetako politikak bete egiten direla egiaztatzea.

Baita gizarte-zerbitzuek arreta egokia eta berdintasunezko laguntza homogeneoa ematen dutela bermatzea ere.

Gaur egungo zerbitzuak eta laguntzak indartzeko eta sendotzeko bitartekoa izango da Goi Ikuskaritza.

Hauetara organo horren eginkizunetako batzuk: gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea bermatuko duten oinarriko baldintzak betetzen direla zaintzea; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskainitako zerbitzuak eta laguntzak egokiak direla egiaztatzea, horretarako prestazio

eta zerbitzuen zerrendan zehaztutako baldintzak aintzat hartuta.

ELKARTEANen iritziz, egokia da:

- Organo batek bermatzea herritar guztiek Gizarte Zerbitzuak jasotzeko duten eskubide subjektiboa.
- Herritarrei arreta egokia ematea, eta lurraldeen artean eta pertsona batzuen eta besteen artean izan daitezkeen bazterketak saihestea. Hau da, gizarte-zerbitzuek estaldura bera izan eta eman behar diete herritar guztiei, edozein lurraldetan bizi direla ere.
- Goi Ikuskaritzaren Planak ikuspegi etikoa jasotzen du eta garrantzitsua iruditzen zaigu kontuan hartzea, guztiek gogoan izan dezaten, nahiz eta, egiari zor, ikuspegi etiko horrek beti hor izan behar duen, gizarte-zerbitzuetan lan egin eta diharduten guztien eginkizunean.
- Goi Ikuskaritzak ez ditu norbanakoen kexa zehatzak aztertuko. Nolanahi ere, ELKARTEANek jakinarazi nahi du hirugarren sektoreko erakundeekin duen hartu-emanen zeregin nagusietako bat hauxe izango duela: elkarteko bazkideen artean jasotako arazoak eta zehaztapenak Goi Ikuskaritzaren Zuzendaritzara helaraztea.
- Gizarte-zerbitzuek erantzun egin behar diete pertsonen beharrezaneri eta, horretarako, eredu asistentziala gaintitu behar dute eta pertsonak beren ingurunean geratzeko ahalegina egin behar dute.



# GIZARTERATZEKO ETA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LEGEAREN BESTE ALDAKETA BAT ONARTU DUTE

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko prestazioaren helburua da oinarritzko beharrezanetarako laguntza ekonomikoa ematea, arrazoi bat edo beste, nahikoa diru-sarrera ez duten herritarrei. Udal gizarte-zerbitzuek kudeatu izan dute betidanik laguntza hori. Lege horren azken aldaketak moldaketa nabarmenak ekarri ditu zenbait alderditan, eta aldaketa garrantzitsuak sortu ditu.



Lan arloko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku geratu dira eta, horren ondorioz, aurreko eredia berrantolatu edo berregituratu egin da. Hala, besteak beste, aldatu egin da diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarria kudeatzeko, izapidetzeko eta ebazteko sistema.

Eztabaida gehiago edo gutxiagorekin komunikabideek jakinarazi duten moduan, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua arduratuko da aurrerantzean bi prestazio horien kudeaketa-prozesu osoaz. Hau da, Lanbidek kudeatuko

ditu aurrerantzean diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitza gastuetarako prestazio osagarria, baita bi-bien tresna osagarria ere: gizarteratze-hitzarmenak, alegia.

Horren helburua da gizarteratze-maila handiagoa lortzea egoera ahulenean dauden kolektiboen artean. Horretarako, lanerako prestutasun aktiboa eskatuko zaie eta prestakuntza profesionala eskaini eta eskatuko zaie, lan-merkatutik baztertuen dauden pertsona horiek enplegua eskuratzeko aukera handiagoa izan dezaten. Beste helburuetako bat da laneratzeko aukera erakargarria izan dadin lortzea, hala langabezian dauden pertsonentzako nola lanean egoera prekarioan ari direnentzako. Batzuek zein besteek gero eta lan hobeak izatea da xedea, gaitasunak ematea, lan batzuetara eta besteetara errazago moldatzeko eta enplegua lortzeko aukera handiagoa izan dezaten.

Oinarritzko tresna ezarri da horretarako: gizarteratze aktiborako hitzarmena; horren bidez, titularrak konpromisoa hartuko du hitzarmenean jasotako ekintzei jarraitzeko.

## Erroldatze-epea

Erroldatuta egotea eta bertan bizitzea oinarri-oinarritzko baldintzak dira diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko errenta-mota guztiak eskuratzeko.

Eskatzaileek gutxienez hiru urtez egon behar dute EAEn erroldatuta, eta eskabidea egin aurreko urteak izan behar du hiru horietatik bat.

Hiru urteko antzinatasuna betetzen ez badute, berriz, ordaindutako lanetan gutxienez bost urte jardun direla egiaztatuta beharko dute lan-bizitzaren bidez, edo aurreko hamar urteetatik bost urte jarraian EAEn bizi izan direla.

## Titularra eta bizikidetz-unitateko pertsonak eskura eta prest izatea

Legearen aldaketak dakarren beste berrikuntzetako bat da prestazioa jasotzen dutenek eta haren bizikidetz-unitateko kideek (lanerako adinean daudenek, betiere) eskura eta prest egon beharko dutela komunitatearen aldeko lanak egiteko eta enplegurako. Betekizun horretatik salbuetsita geratuko dira honako hauek:

- Erabateko ezintasunagatiko pentsioa jasotzen dutenak.
- Ikasketa arautuak egiten ari diren 23 urtez azpiko pertsonak.
- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua-aren arabera komunitatearen aldeko lanak egin ezin duten pertsonak, edota, horrez gainera, Euskal Enplegu Zerbitzu horretako Gizarte Zerbitzuen iritzia kontuan izanda, epe motzean edo ertainean lanean hasateko moduan ez dauden pertsonak.
- Eskura eta prest izateak, gainera, berekin dakar:
- Enplegua eskatzeko izena ematea etenik gabe
- Indarrean den legediaren arabera enplegu egoki bati uko ez egiteko konpromisoa
- Lanean nork bere borondatez, behin betiko edo aldi baterako baja ez emateko konpromisoa
- Lan-eszedentziarik ez hartzea, non eta ez dagoen horretarako muturreko arrazoirik.

## Prestazioa berritzea

Prestazioa amaitu baino hiru hilabete lehenago hasi beharko dute eskatzailak laguntza hori berritzeko eskabidearekin. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak, kasuan-kasuan dagokien datan, jakinaraziko die titularrei prestazioa berritzeko eskabidea izapidetzen hasi behar dutela.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa automatikoki berrituko da, eskabidea berritu beharrik gabe, honako baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- Bizikidetz-unitateko kide guztiak erretiro-pentsioa edo erabateko ezintasun iraunkorragatik, ezintasun handiagatik edo kotizazio gabeko ezintasunagatik dagokien pentsioa jasotzen badute.
- Titularrak edo haren bizikidetz-unitateko kideak epe motzean edo ertainean lan-merkatuan hasateko moduan ez badaude. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak erabakiko du hori, udaleko gizarte-zerbitzuekin elkarlanean, horrela badagokio.

## Eskubidea amaitzea

Hauek dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea amaitzeko arrazoiak:

- Titularra hiltzea, titular hori pertsona bakarra bada edo bizikidetz-unitatean ez bada beste inor bizi.



- Administrazioak prestazioa berri-  
tzeko jakinarazpena egin arren, es-  
kabiderik egin ez, eta prestazioaren  
indarraldia amaitzea.
- Prestazioa onartzeko ezinbestekoa  
den baldintzaren bat behin betiko  
galtzea.
- Hamabi hilabetetik gorako epean  
prestazioa etenda eduki izana.
- Prestazioak indarrean irauten duen  
bi urteko epean bi etete izatea bal-  
dintzak ez betetzeagatik.
- Titularrak bere borondatez uko  
egitea.
- Zigor-prozedura baten bidez horre-  
la ebatzi izana.
- Komunitatearen aldeko lanak egite-  
ko eskatu zaionean, obligazio hori  
ez betetzea.
- Indarrean den legediaren arabera  
enplegu egoki bati edo diru-sarrera  
handiagoak ekar ditzakeen lan-bal-  
dintza hobeei uko egitea, arrazoi  
sendorik gabe.

Titularra hiltzen denean eta bizikide-  
tza-unitatean pertsona gehiago dire-  
nean, prestazioa ez da etengo; aitzitik,  
ezkontideak edo ezkontzaren antze-  
ko harreman iraunkorraren bidez titu-  
larrarekin lotura duten pertsonak edo  
Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak  
bizikidetzta-unitatean egokien irizten  
dion kideak jasoko du laguntza hori,  
eta, horrenbestez, espedientea subro-  
gatu egingo da eta ez zaio beste bati  
hasiera eman beharko.

Prestazioa obligazioak ez betetzeaga-  
tik edo arau-hausteren bat egiteaga-  
tik eteten bada, titularrak ezingo du  
urtebeteen diru-sarrerak bermatzeko  
errentarik eskatu, laguntza eten den  
egunetik zenbatzen hasita.

## Eskaerak

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua-  
ren bulegoan aurkeztu behar ditu es-  
katzaileak diru-sarrerak bermatzeko

errentaren eta etxebizitza gastueta-  
rako laguntza osagarriaren eskabi-  
deak; eskatzailea errolatuta dagoen  
eta bizi den udalerrari dagokion bu-  
legoan, hain zuzen. Bulego horietan,  
eskabidea egiteko beharrezkoa den  
informazio eta orientabide guztia  
emango zaio eskatzaileari.

Gizarte-larrialdiko laguntzen izapi-  
deak aurrez egiten ziren leku berean  
egingo dira, baina betiere interesdu-  
nak eskabidea egin eta aurkeztu be-  
harko du aurrez, errolatuta dagoen  
eta bizi den udalerriko gizarte-zerbi-  
tuetan. Han, izapide horiek egiteko  
beharrezkoa den informazioa eman-  
go diote interesdunari.

## Gizarteratze-hitzarmenak

Gizarteratze aktiborako hitzarme-  
nak programa-dokumentu modura  
zehaztuko dira, eta hor hainbat neu-  
rri zehatz jasoko dira gizarte- edota  
lan-arloan, horien bidez titularrak edo  
bizikidetzta-unitatea osatzen duten  
kideak baztertzeko edo baztertuak  
izateko arriskuari aurre hartzeko, eta  
haien gizarteratzea eta laneratzea  
bultzatzeko.

Gizarteratze-hitzarmenak onuradu-  
nekin adostutako akordio modukoak  
dira; hitzarmen horietan zehazten da  
gizarteratzeko ibilbide edo prozesu  
pertsonalizatua, titularraren eta bizi-  
kidetzta-unitatea osatzen duten beste  
personen beharrezkoak egokitua.  
Dokumentuak konpromiso bat sortzen  
du esku hartzen duten aldeentzat, eta  
hainbat betekizun ere sortzen dira  
konpromiso horretatik.

Lanpostu bat eskuratu ahal izate-  
ko edo lan-baldintzak hobetu ahal  
izateko ekintzak ere jasoko dira hi-  
tzarmen horietan. Araudi bidez zehaz-  
tuko dira ekintza horien ezaugarri eta  
baldintzak. Laneratze beharrezko-  
tzat jotako ekintzak ere bilduko dira  
hitzarmenetan, eta lan-prestakun-  
tzara bideratutakoak lehenetsiko dira  
batez ere.

Gainera, gizarteratza bideratutako ekimen zehatzak ere jasoko dira hitzarmen horietan, eta gizarte-babeserako sistema batzuek eta besteek –bereziki gizarte-zerbitzuek, hezkuntza-, osasun eta etxebizitza-zerbitzuek– aintzat hartu eta beren gain hartu beharko dituzte ekimen eta ekintza horiek, gizarteratze hori lortu ahal izateko.

Honako hauek esku hartuko dute gizarteratze aktiborako hitzarmen-tan: alde batetik, Eusko Jaurlaritzak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez, hala badagokio udaleko gizarte-zerbitzuekin elkarlanean, eta, bestetik, bazterturik edo baztertzeko arriskuan daudela-eta hitzarmen horien onuradun izan daitezkeen pertsonen.

### **Honako hauekin izenpetuko dira gizarteratze-hitzarmenak:**

- a) Eskabidea egin eta diru-sarrerak bermatzeko edozein errenta-mota eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonekin, baldin eta titularrak edo bizikidetzaren-unitateko kideren bat lanerako adinean badaude.
- b) Diru-sarrerak bermatzeko edozein errenta-motaren titular edo onuradun izan ez arren, laneratzeko esku-hartze edo ekintza zehatz bat behar duten pertsonekin, betiere eskabidea eginez gero. Hau da, langabezia-prestazioa jasotzen duten pertsonekin edo inolako prestazio ekonomikorik jasotzen ez dutenekin.

### **Honako hauei ez zaie eskatuko gizarteratze aktiborako hitzarmenik:**

- Erretiro-pentsioak jasotzen dituzten pertsonen.

- Erabateko ezintasun iraunkorragatik, ezintasun handiagatik edo kotizazio gabeko ezintasunagatik dagokien pentsioa jasotzen duten pertsonen.

### **Esku hartzen duten aldean betebeharrak:**

Sorturiko aldaketen berri ematea; hau da, agindutako ekintzak martxan jartzeko aukera ekar dezaketen aldaketen berri ematea.

Izenpetutako gizarteratze aktiborako hitzarmenaren helburua eta xedea betetzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak egitea.

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak hauxe izango du betebeharr nagusia: zerbitzuen eskaintza bermatzea, unean-unean eskuragarri izan eta egokitu diren zerbitzuen eskaintza hain zuzen, hitzarmenean adostu eta sinatutako konpromiso zehatz eta indibidualak bete ahal izateko. Horretarako beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialak ziurtatuko ditu Lanbidek.

Bi hilean behin ebaluatuko dira gizarteratze aktiborako hitzarmenak.

Gizarteratze-hitzarmenak sorturiko konpromisoak ezin badira bete, obligazio hori aldi baterako eteteko aukera ere aurreikusitako da, aldeek aurrez horrela adostuz gero betiere, ezintasun hori sortu duen egoera desagertu edo aldatzen den arte.


Eusko Jaurlaritzari dagokio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez, gizarteratze aktiborako hitzarmena izenpetzeko edo ez izenpetzeko erabakia eta ebazpena.

# ARDURAPEKO SEME EDO ALABENGATIKO FAMILIA-LAGUNTZA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAZ (DBE) OSA DAITEKE

%65eko edo gehiagoko minusbalio-tasuneko 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alabengatiko familia-laguntzaren onuradunek, horren titularrak gurasoak izanik ere, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko osagarria eskura dezakete, betiere gainerako baldintzak betetzen badituzte, eta horien artean egoera ekonomikoari buruzkoa dago.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri hori ardurapeko seme edo alabengatik laguntza jasotzen dutenak eskatu ahal izango dute. Ardurapeko seme edo alabengatiko laguntza Gizarte Segurantzaren kontribuzio-mailatik kanpo dagoen laguntza da, onuradunaren ardurapean dagoen 18 urtez azpiko seme edo alaba bakoitzeko, edo 18 urte baino gehiagoko eta %65eko edo gehiagoko minusbalio-tasuna duen bakoitzeko onartzen dena, besteak beste.

Bi laguntzak bateragarriak egiteko onartutako eskubide hori legalki ezgaituak dauden pertsonentzat ere bada; aurrez pertsona horiei eskubide hori ez zitzaion onartzen; orain, berriz, eskaera bere ordezkari legalak edo epailearen aginduz babesten duen pertsonak aurkez dezake. Moldaketa horiek Arartekoak iradoki dizkio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari.



Beren prestazioaren baitan besteren beharra daukanarentzako laguntza-osagarria ere onartuta duten pertsonen kasuan, hain zuzen ere %75 edo gehiago eta besteren beharra daukanarentzako laguntzan 15 puntu baino gehiago izateagatik, kopuru hori ez da kontuan hartuko dagokiokeen DBEren osagarria kalkulatzeko orduan, ez eta mendeko pertsoneri eskaintzen zaien zaintzaile informalarri dagokion laguntza ekonomikoa ere.

Horrela, moldaketa horren onuradunei beren diru-sarreraren hobekuntza bermatzen zaie, eta diru-sarrera horiek ia lanbide arteko gutxieneko soldatari pareka daitezke.

Pentsio-osagarriaren eskaera izapidetzean, beharrezkoa da onuradunek ardurapeko seme edo alabengatiko prestazioa zuzenean jasotzen dutela dokumentu bidez erakustea, eta aldaketa hori Gizarte Segurantzaren eskatu behar da.

Diru-sarrerak Bermatzeko osagarria eskuratu ahal izateko, eskatzen diren baldintzak betetzeaz gain, ezinbestekoa izango da, errolda eta bizilekua direla-eta, eskaera dagokion Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoan egitea.

## MINBIZIA EDO BESTE GAIXOTASUN LARRIREN BAT DUTEN ADINGABEAK ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

Gizarte Segurantzaren babes-jardunean oraindik orain sortutako prestazio ekonomikoa da aipatutakoa. Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko lanaldia murrizten duten gurasoei edo horrelako adingaberen bat adopzioan edo harreran dutenei bideraturik dago.

Pertsona askok lanaldia murriztu behar izaten dute seme-alabak edo beren kargura dituzten adingabeak ospitalean dauden denboran eta gaixotasuna tratatzeko behar den denbora guztian eta, ondorioz, diru-sarrerak ere txikiagoak dituzte. Hain zuzen, galera hori berdintzea du helburu prestazio horrek.

Zenbait gaixotasun direla medio, adingabeek denbora luzea egin behar izaten dute ospitalean, eta arreta eta zaintza iraunkorra eta etengabea behar izaten dute.

Gaixotasun larri baten diagnostikoa egin eta ospitaleratu ondoren, iraupen luzeko ospitaleratzetat hartuko da etxean adingabearen tratamendu medikoarekin eta zaintzarekin jarraitzea ere. Egoera hori egiaztatzeko, ziurtagiri bat bete beharko du adingabeaz arduratzen den medikuak Osasun Zerbitzu Publikoan, gure kasuan Osakidetzan.

Prestazio hori Gizarte Segurantzako erregimen guztietan aplikatuko da; beren kontura lan egiten duten pertsonen kasuan, berriz, jarduera modu partzialean eten behar izan duten denbora edo aldia babestuko da.

### Bete beharreko baldintzak

Besteren kontura edo beren kontura lanean jardun eta gutxienez lanaldiaren erdia murrizten duten langi-

leek izango dute eskubidea, beti ere Gizarte Segurantzaren erregimenen batean alta emanda badaude eta kasu bakoitzean beharrezkoa den gutxieneko kotizazio-epea egiaztatzen badute.

Beren kontura edo antzera lanean ari diren pertsonen kasuan eta modu jarraituan lan egiten ez duten etxeko langileen kasuan, asteko berrogei orduko lanaldia hartuko da aintzat aipatutako ehunekoak zehazteko.

Bi gurasoek edo adingabea adopzioan edo harreran duten bi pertsonak baldin badute eskubidea laguntza jasotzeko, bakar bati baino ez zaio onartuko, adingabe bat baino gehiago zaindu behar badute ere.

Gurasoak edo adingabearen ardua dutenak epai bidez banatuta badaude, dibortziatuta edo ezkontza baliogabetzat jo bada, eta biek badute eskubidea, elkarrekin adostutako pertsonari emango zaio prestazioa; eta ados jartzen ez badira, adingabearen zaintza duenari; eta zaintza partekatua bada, lehenbiziko eskatzen duenari.

### Lanaldiaren murrizketa zehaztea

Lanaldiaren murrizketa zenbatekoa den zehazteko, enpresa berean lanaldi osoan diharduen edozein langilearen lanaldia hartuko da aintzat; eta lanaldi partzialeko kontratua duen langileak lehendik ere lanaldi-murrizketarik izango balu adingabeak edo senitartekoak zaintzeko edo beste edozein arrazoi dela tarteko, murrizketa hori ez da kontuan hartuko murrizketaren ehunekoak kalkulatzeko.

Langileek ez dute prestazio hori jasotzeko eskubiderik izango lanaldi par-



tziala lanaldi osoaren laurden batekoa edo hori baino txikiagoa bada.

## Prestazio hori eskuratzeko baldintzak

21 urtetik beherakoak: 21 urtez azpiko langileei ez zaie gutxieneko kotizazio-eperik eskatuko laguntza hori eskuratzeko.

21 urtetik gorakoak eta 26 urtetik beherakoak: langileak 21 beteta baditu baina murrizketa eskatu duenean oraindik ere 26 urte betetzeko, justu aurreko zazpi urteetan gutxienez 90 egun eduki beharko ditu kotizatuta, edo bestela 180 egun, ordura arteko lan-bizitzan.

Langileak 26 urte beteak baditu, gutxienez 180 egun eduki beharko ditu kotizatuta eskabidea egin aurreko zazpi urteetan, edo bestela, 265 egun, ordura arteko lan-bizitzan.

## Laguntzaren zenbatekoa eta iraupena

Aldi baterako ezintasunagatiko presztaziorako ezarritako oinarri arautzai-

learen %100aren parekoa izango da prestazio ekonomikoaren zenbatekoa, eta lanaldiaren murrizketaren ehuneko aplikatuko zaio horri.

Hasiera batean hilabeterako onartuko da laguntza, eta ondoren bi hilabeteke epeetara luzatu ahal izango da, adingabea zuzenean, modu jarraituan eta iraunkorrean zaindu behar bada, gehienez ere adingabeak 18 urte bete arte. Osasun Zerbitzu Publikoko (EAEn, Osakidetza) medikuak egiaztatu beharko du beti zaintza horren premia.

## Prestazioa amaitzeko arrazoiak

Berriro ere aurreko lanaldira itzuli izana edo lan-jarduerari bete-betean ekin izana.

- Adingabeak hobera egin duelako edo senda-agiria jaso duelako, hura zuzenean, modu jarraituan eta iraunkorrean zaindu beharrik ez izatea.
- Lan-jarduera amaitu izana.
- Adingabeak 18 urte bete izana.
- Adingabea edo prestazioa jasotzen duen pertsona hil izana.

## Kudeaketa eta prozedura

Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko laguntzaren eskabidea edo eskubide hori onartzeko eskaera dagokion Gizarte Segurantzaren Lurralde Zuzendaritzan edo laneko istripu eta gaixotasunen mutuan aurkeztu beharko dute interesdunek.

OHARRA. Dekretuaren eranskinean 109 gaixotasuneko zerrenda zehazten da, gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko laguntza hori zer kasutan eska daitekeen jakiteko. 1148/2011 ED, uztailaren 29koa, 2011ko uztailaren 30eko BOE.

# MINUSBALIOTASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIOARTEKO HITZARMENA: LANTEGIAK

ELKARTEANek mintegi-ziklo bat antolatu zuen joan den urritik abendura bitartean. Hainbat sektoretako profesionalak parte hartu zuten, hala nola legelariak, Administrazioaren eta elkarteen ordezkariak eta zenbait erakunde (Arartekoa eta Emakunde). Batetik, Minusbaliotasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenak pertsona minusbaliatuen eguneroko bizimoduan zer eragin duen aztertu zuten, eta, bestetik, testu hori gure ordenamendu juridikora nola egokitu landu zuten.

Hala, testu juridiko garrantzitsu hori xehetasunez aztertzea izan zen to-paketen helburua. Testua 2006ko abenduaren 13an onartu zuen NBE-ren Batzar Nagusiak, eta Espainiak 2008ko maiatzaren 3an berretsi zuen. Hitzarmena sinatu duten herrialdeak behartuta daude testu horretan aitortutako eskubideak betetzeko politikak, legeak eta neurri adminis-tratiboak lantzeraz eta praktikan jar-tzera, eta, halaber, diskriminazioa dakarten legeak, araudiak, ohiturak eta praktikak deuseztatzeraz. Aldi be-rean, estatu horiek behartuta daude pertsona minusbaliatuen eskubideak babesteko neurriak hartzeraz eta diskri-minazioaren aurka borrokatzeraz, minus-baliotasuna duten pertsonen aurkako diskriminazioa dakarten praktikak eza-batuz eta programa edo politika berriak onartzeko garaian pertsona horiek kon-tuan hartuz.

Izan ere, pertsona minusbaliatuak dira oraindik ere talderik baztertuenetako bat gizarte guztietan. Herrialde bateko giza eskubideen edo ekonomiaren egoera edozein delarik ere, minusba-liotasuna duten pertsonak azken



postuan agertu ohi dira eskubideak errespetatzeari dagokionez. Munduko eskualde guztietan, munduko herrialde guztietan, minusbaliotasuna duten pertsonak gizartetik baztertua bizi dira askotan, eta bizitzaren funtsezko esperientzia batzuk ukatzen zaizkie. Aukera urria dute eskolara joateko, lana lortzeko, beren etxea edukitzeko, familia bat sortu eta seme-alabak hazteko, gizarte-bizitzaz gozatzeko edo bozkatzeko. Munduko pertsona minusbaliatuen gehiengo handi barentzat, dendak, zerbitzuak eta ga-rraio publikoak, eta are informazioa ere, eskuraezinak dira neurri handi batean.

**Elkarteanek** gizarte-etzabaida bat sustatu nahi du Hitzarmenak plan-teatzen dituen erronka eta aukerei buruz eta gure gizarteak eta lege autonomikoek gai horren inguruan



dituzten ezaugarri nagusiei buruz. Horretarako, gure abiapuntua izango da gure autonomian indarrean dugun legeria aztertzea, gure legeek Hitzarmena zenbateraino betetzen duten ebaluatzeko eta hobetzeko bideak eta gomendioak proposatzeko, eta, pluralismoa aintzakotzat hartuta, giza eskubideen defentsan bizikidetzaren alde egin dezaketen elementuak identifikatuko ditugu.



Gai horiei guztiei buruzko hausnarketa egiteko, Elkartearen taldeak mintegi batzuk antolatatu zituen, eta gai hauek jorratu genituen: emakumea, osasuna, lana eta irisgarritasuna. Hitzarmenaren artikulua espezifikoki batzuekin lotuta dago haietako bakoitza.

## Minusbalio- tasuna duten emakumeak

Mintegiak urriaren 27an, ostegunarekin, hasi ziren, eta, hasteko, Hitzarmenaren 6. artikulua landu genuen; minusbalioetasuna duten emakumeen egoerari eta eskubideei buruzkoa, alegia. Artikulu horri dagokionez, Hitzarmena sinatu duten herrialdeek aitortzen dute minusbalioetasuna duten emakume eta neskatok diskriminazio-modu ugari jasaten dutela, eta



konpromisoa hartzen dute neurriak hartzeko giza eskubide eta funtsezko askatasun guztiak berdintasunez eta erabat goza ditzaten pertsona horiek.



Topaketa Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioan izan zen, eta, besteak beste, Arartekoaren bulegoak, Emakundek, foru-aldundiak eta udalak eta, halaber, oinarriko gizarte-zerbitzuek parte hartu zuten.

Lehen lantegi horretan, Elkarteen Mugimenduko partaideek ideia hau ekarri zuten lehenik: emakume minusbaliatuen ikusezintasuna gainditzeko erronka, eta baita Hitzarmena ez betetzearen aurrean erantzunak aurkitzeko erronka ere.

Bestalde, administrazio publikoek honako hau nabarmendu zuten hasiera-hasieratik: berentzat erronka bat da minusbaliatasunaren zeharkakotasuna gauzatzeko gai izatea berei dagozkien politika, egitasmo eta eskumen-arloetan.

Lantegi hartako ondorio nagusietako bat izan zen EMAKUME MINUSBALIATUEI AHALBIDEAK EMATEA, eta, hain zuzen, gure estrategien ardatza izango da 2012an: minusbaliotasuna dugun emakumeek hartu behar dugu dagozkigun eskubideen kontzientzia, eta eskubide horiek hala aldarrikatu.

## Lana eta enplegua

Hitzarmenaren 27. artikuluar buruzko "Lana eta Enplegua" lantegian (Bilbon, azaroaren 28an), honako jarrera eta lan-ildo hauek hobetsi genituen:

**ELKARTEAN**ek dibertsitatearen zeharkakotasun-estrategien alde egiten du, eta ez ekintza positiboaren alde (halako ekintzak salbuespen gisa aplikatuko ditugu soilik, noiz edo noiz). Hori horrela, minusbaliotasuna duten pertsonak ohiko enpleguan txertatzea da helburua (Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeak berak ezartzen duenarekin bat). Berezitasunak gaindituta daudela erakusten duen etorkizun bat dugu xede; enplegua, gainera, lehen-tasuneko tresna bat da, bizitza-proiektuak gauzatzeko baliabideak ematen baititu, eta integrazioa eta partaide-tza ahalbidetzen.



Mahai hartan egindako hausnarke-tek agerian uzten dute **FUNTSEZKO ERAGILE GUZTIEN LANKIDETZA- ETA KOORDINAZIO-ESTRATEGIAREN alde egiteko beharra**, gai hauetara bideratuta:

- **PERTSONA MINUSBALIATUEN GAITASUNAK ETA PERTSONA HORIEK ESKAINTZEN DUTEN BALIOARI ETEKINA ATERATZEA ENPRESETAN.**

- PERTSONEI LAGUNTZA HOBEA ETA EGOKIAGOA EMATEA ORIENTAZIOAN ETA LAN-IBILBIDEAN, ETA BAITA LAN-MERKATUAN SARTZEKO AUKEREN BITARTEKARITZAN ERE.
- PERTSONAK LAN-MUNDU ARRUNTEAN INTEGRATZEAREN ALDEKO APUSTU GARBIA.

Ezin da alde batera utzi hainbat eragileren partaidetzak duen balio estrategikoa: Lanbide-SVE, Lan Ikuskaritza, Confebask, etab.

## Osasuna

Hitzarmenaren 25. artikuluari (“Osasuna”) buruzko lantegian (azaroaren 28ko arratsaldean, Bilbon), EAEko oraingo egoerari buruzko lehen diagnostiko bat egin genuen, pertsona minusbaliatuek gure osasun-sisteman jasotzen duten zaintzari dagokionez. Hona, oro har, egoera zein den:

- Euskal Osasun Sistema Estatuko sistemarik onenetakoa da. Hala ere, bada dira konpondu beharreko arazoak eta eragozpenak: batetik, pertsona

minusbaliatuek zerbitzuak eskuratzeko eta zerbitzu horiek haien beharretara egokitzeko zailtasunak aipatu behar dira, eta, bestetik, gailu, instalazio eta osasun-zentro eta ospitaleek irisgarritasun eskaseko egoerak agertzen dituzte. Hori horrela, minusbaliotasuna duten pertsonetako diskriminazio eta berdintasun-gabezia larria sortzen da, kontuan hartuta, gainera, bizitzaren zati handi bat osasunguneetan ematen dutela, minusbaliotasunarekin lotutako gaixotasun kronikoak eta bestelako arazoak direla eta.

- Landu beharreko alderdi nagusietako bat pertsonen jarrerak dira, bai Osasun Sistemako profesionalenak, bai minusbaliotasuna duten pertsonenak: bi aldeek elkar ulertzeko ahalegina egin behar dute, bai hurbileko tratuan (alderdi mikroan), bai sistemari baldintza jakin batzuk eskatzeko garaian (alderdi ertainean eta makroan).
- Halaber, muga asko daude pertsona guztien irisgarritasunari eta diseinuari dagokienez: pertsona minusbaliatuek oztopo handiak aurkitzen



dituzte eguneroko bizimoduan, osasun-zentro eta ospitaleetan irisgarritasun eskasa baitute gailuek, tresnek edota espazioek: erraz zabaltzen ez diren atreak, mostradore altuak, kontsulta irisgarriak eza, esku-ohetarako hidraulikorik eza, transferentzia-gidariak eza, mamografo irisgarriak eza, azterketa ginekologikorako esku-ohetarako eza, zeinuen hizkuntzako interpretariak eza, zaintzaileek ez dute esku-ohetarako transferentziarik egiten (funtzio hori betetzeari uko egiten diote arriskuen prebentzio-egatik, baina, azken batean, gailu egokirik ez dagoelako gertatzen da), bainugela txikiak eta egokitu gabek... Horrek guztiak egoera desatseginak sortzen dizkie pazientei eta osasun-langileei. Laburbilduz, osasunerako eskubidea ez da berdintasunez gauzatzen, eta horrek diskriminazio-egoerak sortzen ditu.

- Sistema ez dago prestatuta minusbaliotasunak sortzen duen zaintza-behar kronikoa emateko, ez eta minusbaliotasunak dakartzan arazo ugariak konpontzeko ere. Sistema arazo akutua edo iragankorra jasotzeko eta konpontzeko diseinatuta dago. Alabaina, gero eta gehiago,

elkarri eragiten dioten egoera nahasiak sortzen dira, eta egoera horiek kroniko bihurtu ohi dira. Sistemaren beste ezaugarri bat da laguntza zatikatua ematea; horrek zaildu egiten du pertsona minusbaliatuek behar duten laguntza globala. Izan ere, laguntza pazientek ematera behartzen du sistemak, ez prozesuak. Ezin dugu ahaztu "beren bigarren etxea osasun-zentroa" dela pertsona minusbaliatu askorentzat.

- Katalogo ortoprotesikoak ez ditu autonomia eta bizitza independentearen eredia bultzatzeko beharrak asetzen. Gainera, gero eta zailagoa da laguntza horiek eskuratzea.

Egoera hori ikusita, lantegian parte hartu zutenek agerikotzat jo zuten **FUNTSEZKO ERAGILE GUZTIEK LANKIDETZA- ETA KOORDINAZIO-ESTRATEGIA BATEN ALDE EGITEKO BEHARRA, ALDERDI MIKROAN, ERTAINEAN ZEIN MAKROAN.**

## Irisgarritasuna

Minusbaliotasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren inguruko lehen hausnar-



keta-lantegiak azaroaren 29an amaitu ziren, Bilbon. Hala, Hitzarmenaren 9. artikuluari ("Irisgarritasuna") buruzko saio bat izan zen.

Agerian geratu zen administrazioek gehiago kontrolatu behar dutela gaiari buruz indarrean dagoen araudia behar bezala aplikatzea, irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren ikuspegitik, bai hirigunean, bai eraikin, azpiegitura eta garraibideetan.

**ELKARTEANek** irisgarritasun unibertsalaren, guztientzako diseinuaren eta zeharkako estrategien alde egiten du.

Mahai hartako hausnarketek agerian uzten dute **FUNTSEZKO ERAGILE GUZTIEN LANKIDETZA-, KOORDINA-**

**ZIO- ETA INPLIKAZIO-ESTRATEGIA-REN alde egiteko beharra.**

**Elkarteanek** partaidetza-gune horietan ateratako ondorioak eta hobetzeko proposamen eta gomendioak argitaratuko ditu, eta espero dugu 2012an halako gaietan sakontzen jarraitu ahal izatea, eta baita Minusbaliotasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenean jasotzen diren beste batzuetan ere, eskubide horiek urratzen direnean gure lan aldarrikatzaile eta salatzailearekin aurrera egiteko.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkiegu lantegietan parte hartu duten pertsona guztiei, saioak aberatsagoak eta emankorragoak izan baitira haien ekarpenei esker.

## **CERMI AUTONOMIKOAK: ESTATU-MAILAKO VII. KONGRESUA**

Azaroaren 24an eta 25ean, CERMIren autonomia-ordezkariei urteko kongresua egin genuen Hotel Gran Bilbaon. **ELKARTEANek** ere, **EDEKA** elkarteko kide den aldetik, kongresuan parte hartu zuen, eta harrera egin zien beste autonomia-erkidego batzuetako CERMIen ordezkariei.

**2011-2020 INKLUSIORAKO HAMAR-KADA** lelopean, batetik, sektorea nola dagoen aztertu genuen, eta, bestetik, datorren hamarkadarako aurreikuspenak landu genituen.

Mariano Cortés Lanbideko Lan Aktibazioko zuzendariak eman zuen kongresuko lehen hitzaldia. Hari esker, lehenik, gure autonomia-erkidegora eskualdatu diren enplegu-eskumenen berri izateko eta haien garrantziaz ohartzeko aukera izan genuen; eta, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-inklusioko politika aktiboek geure kolektiboan zer eragin duten izan zuen hizpide. Halaber, ahalmen-urritasuna duten pertsonak

eta lan- eta gizarte-arloko inklusioari lotutako gaiak aztertu zituen Pepa Torresek, FEACEM eta CERMI erakundeen ikuspegitik.

Ondoren, zenbait taldetako ordezkariei lekukotasunak ezagutu eta entzun genituen, eta aniztasunari loturik suertatzen diren zenbait egoera aztertu. Hala, aipagarria da kongresuan izan zen mahai-ingurua: agerian gelditu zen zer egoera bizi dugun gaur egun oraindik ere hezkuntzan, integrazio-egoerak besterik ez baitugu ikusten, eta ez benetako inklusio bat.

Bestalde, genero-ikuspegiak ere bere lekua izan zuen kongresuan, eta ahalmen-urritasuna duten neskato eta emakumeek nolako errealitatea bizi duten aztertu zuen Fekoor (**ELKARTEAN**) elkarteko berdintasun programen arduradunak. Halaber, aisia aztertu zuen, bai eta bere osotasunean aztertu ere, Deustuko Unibertsateko Aisialdia eta Minusbaliotasuna Katedrako ordezkariek.



Agintariak, kongresuaren inaugurazio-ekitaldian.



Azkenik, estatuko zenbait CERMIk gaur egungo krisi-egoeran bizi duten egoeraz hitz egin zuten, eta murrizketen eta autonomietako plataformek dituzten zailtasunen berri eman zuten.

Zailtasunak zailtasun, argi eta garbi gelditu zen oso garrantzitsua dela taldeen aldarrikapen-lana eta oraindik ere lan handia dugula egiteko aniztasun funtzionala duten pertsonen aukera-berdintasuna eta diskriminazioz eza lortzeko bidean.